MUSKIZ
UDALA
Kultura, Kirola, Gazteria eta Euskara
Cultura, Deporte, Juventud y Euskera

DIRULAGUNTZA DEIALDIA, 2022-23 IKASTURTEAN EUSKARA IKASTEN ARITU DIREN MUSKIZKO HERRITARRENTZAKO

1. XEDEA

Honen helburua **Muskizen erroldatutako pertsonei** euskara ikasteko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da.

2. AURREKONTUA

Muskizko Udaleko Euskara Zerbitzuak 10.000 euroko aurrekontua du horretarako.

Eskabideak baloratu ondoren deialdi honetako aurrekontua baino zenbateko handiagoa aterako balitz, zenbateko horren eta deialdiaren arabera erabilgarri dagoen zenbatekoaren arteko aldea modu proportzionalean kenduko da diruz lagundutakoen artean.

3. ONURADUNAK ETA BAZTERKETAK

a) Dirulaguntza jaso ahal izango dute eskabidea egitean Muskizen erroldatuta daudenek, baldin eta HABEk homologatutako euskaltegi publiko edo pribatuetan euskara ikasi badute, Muskizko AEKren euskaltegia eta Udal euskaltegia barne.

b) Enpresa edo erakundeek diruz laguntzen dituztenek eska ditzakete dirulaguntza horiek, baldin eta jasotako zenbateko osoak ez badu gainditzen matrikularen zenbatekoa.

c) Deialdi honetatik kanpo geratuko dira 'a' atalean (Hizkuntza Eskola Ofiziala, akademiak, IRALE, IVAP edo lantokietako berariazko beste programa batzuk) jasota ez dauden beste ikastetxe publiko edo pribatu batzuetan ikastaroak egiten dituztenak.

4. DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK

a) Diruz lagundu ahal izango dira 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean egindako edozein iraupeneko ikastaroak, ikastaro trinkoak eta barnetegiak barne (barnetegietan matrikula-gastuak lagunduko dira diruz, baina inola ere ez egonaldi- eta joan-etorri-gastuak).

b) Ez da diruz lagunduko ikastetxeetako edo guraso-elkarteetako eskolaz kanpoko euskarazko jarduerarik.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

a) Eskabideak Muskizko Udal Erregistroan edo Euskara Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, jendaurreko ordutegian (09:00-13:00), 2023ko urriaren 2tik 31ra.

b) Diruz lagunduko dena adingabea balitz, guraso edo tutore batek egingo du eskaera.

6. Aurkeztu beharrekoak

a) Muskizko 2 euskaltegietako ikasleentzat

- NANaren kopia.
- Eskabidea behar bezala beteta.

b) Muskiztik kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat

- NANaren kopia.
- Eskabidea behar bezala beteta.
- Ikasketak egin diren HABEk homologatutako euskaltegiaren ziurtagiria, honako hauek zehaztuta:
  - Matrikula gisa ordaindutako zenbatekoak.
  - Klasera joandako orduen ehunekoa, emandako ordu-kopurua eta ikasleak jasotako orduak zehaztuta.
  - Egindako maila edo mailak.

7. Dirulaguntzaren zenbatekoa

a) Deialdi honen bidez ikasle bakoitzari gehienez 400 € emango zaizkio.

b) Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa matrikularen % 80koa izango da.

8. Irizpideak, ordainketa eta justifikazioa

a) Ikasleak ez baditu ziurtagiriak epe barruan aurkezten, dirulaguntzari uko egiten diola ulertuko da.

b) Dirulaguntzaren zenbatekoa eskabidean adierazitako kontu-zenbakian sartuko da.

c) Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- "Aurkeztu beharrekoak" atalean zehaztutako dokumentazioa behar bezala ziurtatzea.
- Matrikula ordaindu izana.
- Egindako ikastaroetan gutxienez % 85eko bertaratzea egiaztatzea.
- Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

9. Ebazpenak jakinaraztea

Eskabideak ebatzi ondoren, eskatzaile guztiak idatziz jakinaraziko ditu dagokion sailak, eta, ondoren, emandako zenbatekoak sartuko dira.